

Tribua

Antton Izagirre

Tribu osoa behar omen du haur batek behar bezala hezteko. Bizi garen gizarte modernoan familia zabalak galdu egin du heziketaren ardura; kasurik onenean, guraso biko familiaren mesedetan. Kasu askotan ez dira nahikoa haurrak bere garapen prozesuan dituen behar afektibo emozionalak, baloreak, ardurak, mugak eta erantzukizunen transmisioa zuzen helarazteko. Maiz katea eten egiten da eta haurra gaztetxo bilakatzen da eredu jakinik gabe

edo tribuak transmisioan izan duen funtzioa nork bete izan gabe. Bilboko zenbait auzotan hainbat gaztetxok bortxa eta heriotza eragin dituzten jokamolde tamalgarriak izan dituztela-eta sortutako eztabaiden harira datozkit burutapenok. Asko hitz egin da gazte horien izaera anker eta desbideratuari buruz; asko hitz egin da hartu behar omen diren neurri sozial eta juridikoez, zigor eta araeuz. Horretan ari garela, beharbada ahaztu egin zaigu gaztetxo izan aurretik

haur izan direla eta haurtzaroan izan dituzten zaintza gabeziek, bizi-baldintzek, gertuko enereduek edota eredu ezak, jasotako moldeek, geroko nortasuna eraiki dutela. Inor ez da lapur, gaizkile edo hiltzaile jaiotzen. Batzuetan, iturburuan urak bideratzen ez badira, gerora urari presa jartzea alferrikakoa izan liteke. Hobe izango da arreta eta dirutza haurtzaroan jartzea, gero gaztetxoentzat kartzeletako hormak altxatzen aritzea baino. •

32 urte eta gero

Miren Azkarate Badiola

1986ko “Argia” aldizkari bat izan dut eskuartean egunotan. Betidanik etxean izan dugun alea da, beno, nire atxiloketan Guardia Zibilak eraman zuen eta ondoren ez nekien itzuli ziguten edo ez, baina orain badakit baietz. Aitari urte hartan egin zizkioten torturen harira hedabide ezberdinetan egindako elkarrizketak, argazkiak, eta abar. Guztiak ditu amak gordeta, eta aipatu “Argia” hartan, amari egindako elkarrizketa bat azaltzen da;

azalean nire aitaren eta anaiaren argazki bat ikus daiteke. Orain arte ez nekien zein kazetarik egin zion amari elkarrizketa hura eta kasualitateak edo jakin ezazue nork nahi izan duen, lanean torturaren aurkako eguna dela-eta prestatzen ari nintzen elkarrizketen artean, orain bera ere torturatu bezala eta nik lan egiten dudan hedabideko zuzendari bezala, nik berari eta berak niri buruz buruko elkarrizketa bat egitea. Solasaldi moduko bat izan dugu Iñaki Uriak

eta biok, eta hortxe aitortu dit bera zela ezizen baten atzean amari egindako elkarrizketa hartan zegoen kazetaria. Nola diren gauzak, 16 urte berandua-go haien alaba izango zen bortizki torturatua eta 17 urte beranduago bere hitzak jaso zituen kazetaria. Eta biek, kazetari eta hedabide berdineko langileak, aurrez aurre hori gogoratu eta elkarrukatu zuten, 32 urte berandua-go, torturaren aurkako egunean, Joxe Arregi erail eta 37 urtera. •